

JEAN THIKOIBE

HERRIKOA SOZIETATEKO
LEHENDAKARIA

«Nahiz eta zenbakietan ez agertu, sendotu egin dugu enpresen osagarria»

Lanpostuen sorrera egun ez da lan erraza; Ipar Euskal Herrian eta krisi garaia denean are gutxiago. Herrikoa-k Ipar Euskal Herriko gazteei herrian bizi eta lan egiteko hautua eman nahi die, horretarako bere kapitala enpresen sorreran ezarriarik. Aurten Zuberoan bi enpresa lagundu dituzte besteak beste, nahi izanez gero dena lor daitekeela erakusteko.


■ Herrikoak zein bilan egin du iragandako urteaz?

Ez da gaiztoa izan, ona baizik. Zifreetara so eginik, iduriz iragan urtekoa baino txarra da, baina errealitatean hobea izan da. Aurten gauza anitz pasarazi ditugu, eri ziren enpresen kapitala aprobisionatu dugu. Horrez gain, Herrikoa-ko beste enpresak hobeki ari dira, hobeki bizi. Lan sortzei buruz izan dira urte hobeak, aurten 71 lanpostu jalgi baitira, baina ez da anitzik galdu, zazpi lanpostu denetara.

■ Nola erabakitzen duzue dossier baten onartzea eta ondorioz zuen kapitala bertan inbertitzea?

Lehenik, Herrikoa-k aholkularitza lana egiten du. Pertsona bat, enpresa proiektua izanez gero, Herrikoa-ra helduko da eta bere kasua presentatuko. Hor baditugu bi pertsona aditu jendeen kontseilatzerat heldu direnak, Pierre Mendiburu eta Mixel Iturbide. Horiek dute ikusten ea proiektua bideragarria denentz, ea egin edo munta daitekeenentz, eta baztertu edo eskuratzeko elementuak zeintzuk diren argitzen dute. Aurkezten diren proiektuen artean % 10 izan ohi dira bururaino heltzen direnak, gauzatzen direnak. Aurten 15 dossier aurkeztu dira komite teknikoan. Mendiburu eta Iturbidek onarturiko proiektuekin dossierak muntatzen dira, ondotik komite teknikoari aurkezteko. Komite teknikoan 12 eta 15 aditu izan ohi dira merkatua aztertu, dossierra ona denentz, produktuak etorkizuna duenentz eta baita aurkezten duenaren gaitasuna ere ebaluatzen dutenak. Komitean bankuko ardura-dunak, enpresa buruak, kontulariak, abokatuak eta abar badira. Horiek dute dossiera estudiantzen.

Hala ere, erran behar da erabakia ez dugula segidan hartzen, eta engaiatu aitzinetik aski luze izaten dela, anitz xehetasun galdegiten dugula. Onartua delarik, enpresako kapitala sartzeko gara, sozietario bat bezala, eta ondoren diruz laguntzen dugu. Normalki erdi eta erdi egiten



Jean Thicoipe, Herrikoa-ko lehendakaria izateaz gainera, Hiriburuko Copelectronic enpresako burua da.

HUR GOROSTIAGA

dugu, inbertitzen dugun diruaren erdia kapitalean, eta bertzea bost urterik buruz egiten dugun diru maileguan.

■ Zer izan behar du dossier batek onartua izateko?

Dena ahal bada. Aurten 11 dossierretan sartu gara, horietatik lau izan dira kreazioak, jendeek beren enpresak sortu dituzte gure laguntzaz. Hor ditugu Baionako AGP soldaten kudeantzarako enpresa, Miarrizko Laguna Studios grabaketa estudioa, Moby Dick Hendaiaiko urpeko aktibitate enpresa eta Sic Image Milafrangako enpresa, karten numerazioan ari dena.

Sortzen diren enpresak usaiari tipiak izan ohi dira, baina denborarekin indartzu joaten dira. Beste dossierren artean garapena ere laguntzen dugu, aurten Zuberoako Emeca mekanika enpresarekin egin dugun bezala. Xixtarteko Borda, berriz, Kanbon eratuko dugun baserri etxola da. Garapenetan azken Miarrizko Berritzeko arropa enpresan izan da. Enpresak desegitean ere hartutakoak baditugu, eta aurten Donibane-Lohizuneko Logotext eta Mauleko Ispac izan dira. Azkenik, enpresak indartu ditugu, Baionako PLI eta Frois Emballage bezala. Aurten ikusgarria izan da betez ere Zuberoan bi lantegi lagundu izana, horrek frogatzen baitu gauzak aitzinarazten ahal direla. Azken bi lanak, berriz, Hendaiaiko Txo eta Jatsuko So-

Jean Thicoipe Herrikoa sozietateko lehendakaria da. Ipar Euskal Herrian enpresak sortu, berrartu eta garatzen laguntzen duen egitura da Herrikoa. Enpresa proiektuak dituzten pertsonen dosierak aztertuta ondoan, Herrikoak dirua enpresetan inbertitzen du eta dirua mailegatzen. Aurten ekitaldiari buruzko bilan positiboa egin badute ere, sorturiko lanpostu kopurua uste baino tipiagoa izan dela aitortu digu Thicoipek. Haatik, krisi garaia alde batera utzirik, enpresen osagarria eta osasun egoera hobetzea lortu dute.

♦ Hamaika milioi liberako kapitala

HERRIKOA duela hamabost urte sortu zen. Lana herrian sortu eta atxikitzea izan du lehen helburu hastapen-hastapenetik. Egunez egun lan bila herriatik urruntzen ziren gazteei Euskal Herrian bizi eta lan egiteko hautua eman nahiz sortu zen eta gaur egun arte iraun du. Hamabost urteotan Ipar Euskal Herrian 1.382 lanpostu sortzen lagundu du Herrikoak.

Thicoipek azaldu digunez, egun Ipar Euskal Herrian bazter ezartzen edo aurrezten den diruaren % 60 baino gehiago Ipar Euskal Herrikan inbertitzen da. «Herrian lana atxikitzeko, biziki garrantzitsua da tokian bertan inbertitzea diru hori. Guk dirua Euskal Herrian bildu eta Euskal Herrian uzten dugu».

Sozietate gisa eraturik, egun 11 milioi liberako kapitala du; hots, 275 milioi pezeta inguru. Diru hori hiru aldetatik lortzen dute. Banketxeek % 15 ematen dute, enpresek % 20 eta partikularrek kasik % 70. Hain justu, partikularrek edo hainbeste akzio-dun izateak sortzen dute Herrikoaren bertze berezitasuna.

«Diru hori enpresetan ezartzeko da. Egun diru horren % 65 enpresetan inbertitua dago, eta bertze 4 milioi enpresa berrietan inbertitzeko prest atxikirik. Bestenaz Herrikoaren eguneroko bizitzarentzat 700.000 liberako diru zatia dugu urteko, etekinetatik heldu dena, bai enpresen partizipazioetatik bai 11 milioi liberako kapitalak sortzen dituen interesetatik».

Momentu honetan Herrikoak Ipar Euskal Herriko 50 enpresatan du kapitala. Aitzizetan Herrikoak lanpostuak sortu dituela erraten bada ere, «Herrikoak lanpostuen sorrera laguntzen» duela argitu nahi izan du, azken finen lanpostuak sortzeko ahalmena edo boterea enpresetako buruen esku gelditzen baita.

Herrikoak, era berean, hurbiletik lan egiten du Hemen elkartarekin. Herrikoak dossierak aztertu eta dirulaguntzak ematen baditu ere, Hemenek geroari edo aukera berriei buruzko ikerketak egiten ditu, ideia berriak bultzatuz eta lagunduz. X

mocap izan dira.

■ Heldu den urteari buruz zein perspektiba?

Azken hiru hilabeteotan ez da dossier anitzik heldu, baina iduriz hasi dira berriz atzartzen. Heldu den urteak aurtengoa bezain ona izan beharko luke errendimendu aldetik, eta hobea zifretan. Genituen gaiztoak jalgiak ditugu, gelditzen direnak hobeki dira. Duela bi urte 80.000 libera ukan genituen enpresen partaidetzetatik; iragan urtean dobla ukan dugu. Hori da enpresen osagarri onaren marka. Orain dossier on batzuetan sartu gara, eta espero dugu bertze batzuk agertzea.

■ Departamenduan edo eskualdean kiderik baduzue?

Fond 64 garantia kutzarekin harremanak ditugu. Bost edo sei urte dira Herrikoa ongi ezagutzen dutela eta onartua dela, lehenago ez baitzen hala. Horregatik babesa jasotzen dute gure kapitalek, kostua eta arriskuak tipituz guretzat zein enpresentzat, finean kasik % 60 garantiapen baitago proiektuan. Akitanien ere beste garantia kutxa batekin jotzen dugu. Gisa horretan, enpresek porrot egiten badute, aseguruak kalteen erdiak ordaintzen ditu. Hala errazago ari gara. Horrek erran nahi du arriskua tipitzen dela, eta errazago abiatzen ahal garelako proiektu berrietan.

Hur Gorostiaga

ANGELU

BARNEALDEA

«Zuberoan bi lantegi lagundu izanak frogatzen du gauzak aitzinarazten ahal direla ahala ezarri geroz»

HELBURUA

«Herrikoa-k Ipar Euskal Herriko gazteei herrian bizi eta lan egiteko hautua eman nahi die»

AURREZKIA

«Egun Ipar Euskal Herrian aurrezten den diruaren % 60 baino gehiago Ipar Euskal Herrikan inbertitzen da»